

Colegio "La Salle"

Telefs. 23.970 - 23.971 - 23.972

SAN SEBASTIAN

L/-

13-VII-65

Aita Lafitte.
3.r.Jacques
Bayonne.

Aita agurgarria:

Ziur nago ez nauzula ezagutu-
ko, izan ere ez naukazu zergatik ezagutu bearrik.

Nolabait presentatzeko, ni naiz bertsolari txiki,
dantzari, Izarra taldeko txistulari txikiekin eta abar,
Umeen Euskal-Jaiak antolatzen ari naizena Gipuzkoan.
Orain Zarautz'ko Umeen II Euskal-Jaiak'kin gabiltz jo ta
ke.

Urrengo baten bialduko dizut azalgai osoa.
Gaurkoz beste arlo bat dakarkit. Begira. Umeen Jaialdi
auri ondo datorkio folklorea, baña ez degu or geratu be-
ar. Beste zerbait ere bear degu, derriorrean. Zer?

Nik au pentsatu det. 14 urtetik berakoan artean
IDAZ-SARIKETA bat egitea Euskalerrri osoan.

Au bera egiten du Coca-Cola'k gazteleraz.
4 'garrengo batxillerra egiten ari diran mutikoekin,
Españi guziko Sariketa antolatzen du. Guk ere, oiek beze-
la, Euskalerrriko Sariketa jarri bear degu euskeraz. Lan
auen iritzia Euskaltzaindia'koak eman bear dute zalan-
tzarik gabe. Euskaltzadia'k baimen osoa eman digu Iri-
goyen'en idatziz. Beste eskut- itz bat ere egin diot
eskeintzen zuan laguntza eskatuaz, baña oraindik ez det
artu erantzunik.

Arzalluz, Joseba M.

Colegio "La Salle"

Telefs. 23.970 - 23.971 - 23.972

SAN SEBASTIAN

Aurrenean onela egitea pentsatu nuan.

Agostuaren 22'a baño lenago SARIKETAN erten nai duten idazlaritxobak, beren izen-abizenak zuzenbide ontara bialdu bear dituzte edo zituzten obeto esateko.

Jesus M^a. Ugarte. Juventud Parroquial. Amezti, 2. Zarauz.

Agostuaren 22'an Zarautz'era etorri zezatela parta artu nai zuten ume guziak eta emen egin euren lantxoak.

Illaren 29'an Euskaltzaindia'ko jaun korrejitzalleak Zarautz'ko jate-txe baten bildu ta erabakiak artu. Gero illaren 5'ean, Agorillean, Umeen Euskal-Jaian, amar mutiko onenak saritu jende guziaren aurrean.

Orain zertxobat aldatzea iruditu zait. Alegia, idaz-lan edo redakzio au Zarautz'en bakarrik egin bearrean, 6 edo 8 edo 10 lekutan egitea, egun eta ordu berean, denari Euskaltzadia'koak aukeratutako GAI BERDIÑA jarriaz.

Ta bi galdera. 1^o. Bi asmo auetatik zein derizkiozu egoki-ena? Bigarrena izan ezker, Bidasoaz bestaldeko antolakisuna zeren gain utziko genduke? Antolatzalleak billatu edo aukeratu bear ko lituzkete erri bat edo bi edo iru, bear diranak; erri auetan leku bat IDAZ-SARIKETA egiteko. Ta Agostuaren 22 baño lenago izenak artu, zenek etorri bear duten jakiteko. Ta Agostuaren 22'an Euskaltzaindia'k aukeratutako GAIJA jarri denari.

2^o. Umeak -orkuak batez ere- zerbait agertzea, parte artzea nai baldin badegu, zer sari eskeñi bear dizkiegu? Zenbat diru esan nai det. Frankoz, pesetaz edo dolarez?

Ez ni joakizu geiago nekatzera. Bi galderatxo auen erantzuna bear det len-baitlen. Ta beste zerbait badezu, berdin.

Bitartean, ar itzazu nere eskerrik beroenak eta zurearen zai geratzen naiz, besarkada aundi batekin.

José María Arzak